



## *Udalbatzaren osaera eta funtzioak*

### *Composición y funciones del Pleno Municipal*

UDALBATZA herritarren ordezkariak politikorako organo nagusia da udal gobernuan. Eztatidarako organoa da, eta estrategiako erabaki handiak hartzen ditu, hainbat arau onartuz (arautegiak, beste arau orokor batzuk, udal aurrekontuak, hirigintza-antolamendurako planak, zerbitzuak kudeatzeko erak, eta abar); halaber, gobernu-organok kontrolatu eta fiskalizatzeko organoa ere bada.

Zinegotzi guztiek osatzen dute Udalbatza, eta alkatea da burua.

Udalbatzak ohiko eta ezohiko bilkurak egiten ditu, eta azken horiek, gainera, presazkoak ere izan daitezke.

Ohiko osoko bilkurak normalean hileko hirugarren astelehenean egiten dira, 17:30ean.

Ezohiko saioak egingo dira Presidenteak hala eskatzen duenean, edo, gutxienez, Korporazioko legezko kide-kopuruaren laurden batek hala eskatzen duenean. Zinegotziek, hala ere, ezingo dituzte urtean hiru baino gehiago eskatu. Azken kasu honetan, bilkura ezingo da atzeratu eskatzen den egunetik kontatzen hasi eta hamabost egun baino gehiago. Gaia ezingo zaio ohiko edo ezohiko Osoko bilkura baten gai-ordenari gehitu, bestelako gaiekin, deialdia egin dutenek ez badute berriaz hala egiteko eskatzen.

Epearen barruan eta gutxieneko zinegotzi kopuruak Ezohiko Osoko bilkura eskatu, eta Presidenteak ez badu deitzen, aipatutako epea bukatu ondorenko baliodun hamargarren egunean deituko da automatikoki, hamabietan, eta Korporazioko Idazkariak jakinaraziko die kide guztiei hala dela, aurrez aipatutako epea bukatzen denetik kontatzen hasi eta hurrengo egunean.

---

EL PLENO es el órgano de máxima representación política de la ciudadanía en el gobierno municipal. Se configura como órgano de debate que adopta las grandes decisiones estratégicas a través de la aprobación de los reglamentos, de otras normas generales, de los presupuestos municipales, de los planes de ordenación urbanística, de las formas de gestión de los servicios, etc., y de control y fiscalización de los órganos de gobierno.

Se compone de todos los Concejales y Concejales, y está presidido por el Alcalde o Alcaldesa.

El Pleno celebra sesiones ordinarias y extraordinarias, que podrán ser además urgentes.

Las sesiones plenarias de carácter ordinario se celebran habitualmente los terceros lunes de cada mes a las diecisiete treinta horas.

Las sesiones extraordinarias tendrán lugar cuando así lo decida el Presidente o lo solicite la cuarta parte, al menos, del número legal de miembros de la Corporación, sin que ningún concejal pueda solicitar más de tres anualmente. En este último caso, la celebración del mismo no podrá demorarse por más de quince días hábiles desde que fuera solicitada, no pudiendo incorporarse el asunto al orden del día de un Pleno ordinario o de otro extraordinario con más asuntos si no lo autorizan expresamente los solicitantes de la convocatoria.

Si el Presidente no convocase el Pleno extraordinario solicitado por el número de concejales indicado dentro del plazo señalado, quedará automáticamente convocado para el décimo día hábil siguiente al de finalización de dicho plazo, a las doce horas, lo que será notificado por el Secretario de la Corporación a todos los miembros de la misma al día siguiente de la finalización del plazo citado anteriormente.